

GUZU KIROL ESKAINZA 2025/2026

Orain 7 urte abiatutako hausnarketan, komunitatean amets egin eta elkarrekin egin nahi genuen bidea adostu genuen.

Hor agertu ziren sormena, elkarlana, jakintza desberdinetan murgiltzeko nahia, herriarekin lotura sakontzekoa, belaunaldien arteko harremanen aberastasuna, proiektu anitzen antolaketa... Egia da pandemiak eman nahi genituen pauso batzuk baldintzatu dituela, baina aurtun, azkenean, aukera dugu nahi genuen hura bere sakontasunean aplikatzen hasteko, eta horretan ari gara!

GUrie

Teoriatik
praktikara

Komun
itate

Eragina
Herrian

Proiektu errealak, herrirako sortuak, Ikastola osoko ikasleen parte hartzearekin. GUrie espazioa praktikoa da eta adin desberdinetako ikasleen arteko elkarlana eta elkar ezagutza bultzatuko du.

Hasteko, egun eta gai berezien inguruan lantzen hasiko gara: euskararen eguna, martxoak 8, ingurumen astea, jaialdi egunak...

Helburuak:

- Proiektu sortzaile eta ekintzaileak sortzea.
- Egiten ikastea eta, horrela, komunitateari eta herriari ekarpenak eginez, proiektu anitzen garapena sustatzea.
- Teoria praktikan jartzea.
- Elkarlana, inplikazioa eta saiatzearen baloreak balioan jartzea.

Gutzako

Errefortzuak

Eskolaz
kanpokoak

Errefortzu orduak eta eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza da. Laguntza behar duten ikasleek honen barruan jasoko dute eta etxeko lanen bat balego, hemen ere burutzeko aukera egongo da. Era honetan, 16:30etarako horiek eginda atera daitezke ikastolatik. Jakintza mota desberdinak edota multikirolak egiteko aukera ere eskainiko du GUTzakok. Helburuak:

- Behar duten ikasleei laguntza gehigarri bat eskaintzea ikasgai espezifikoetan.
- Ikasleek etxera daramaten lan-karga gutxitzea.
- Ikastolaren eskolaz kanpoko ekintzen aniztasuna aberastea.
- Eskaintza hori ikasle eta familia guztientzat eskuragai egotea.

GUmakers

Ikastolako irteera profila sendotzeko konpetentzia ez kurrikularrak lantzeko tailerrak dira. Arte, informazio teknologiak, dramatizazioa, edo irteera profilarekin bat datozen bestelako hainbat gai lantzeko tartea. Espazio honek, gainera, hala nahiko luketen gurasoei tailerrak dinamizatzeko aukera ematen die. Besteak irakasleek edo monitoreek bideratuko lituzkete.

Helburuak:

- Zeharkako konpetentziak landuz, ikasleen esperientziak aberastea.
- Ikasleei esperimentaziorako aukera zabaltzea.
- Agente desberdinak ikasketa prozesuko parte bilakatzea.
- Ikastolako rolak aldatzea.

Izaten
Ikasten
Ekitzen
Pentsatzen
Elkarrekin bizitzen
IKASI

KONPETENTZIAK
Soziala
Teknologikoa
Linguistikoa
Literarioa
Matematikoa
Zientifikoa
Artistikoa
Motrizia

GAIK
Arte plastikoa
Hezkuntza emozionala
Teknologia berriak
Antzerkia
Bertsolaritza
Nutrizioa
Ekintzailtza
Dantza
Yoga
Zinema

GUZU ESKAINTZA HH/LH 2025/2026



GUZU/ARTEAK

SORMENA / LH1etik LH6ra



Hezkuntza sortzaile eta aktiboetan oinarritutako Sormen libreko tailerra. Material anitza edukiko dute eskura, norbere erritmora, sormen prozesuan murgildu ahal izateko.

Bide laguntza gertu eta samurra bitarte dela, barne mundu eta irrikaren arabera erabakiko dute. Bidea emanez, umeen sorkuntza prozesuaren funtsa parte hartzen duten autonomia, teknika, jolas libre, askatasuna elkarlaguntza eta autoestimuari.

ANTZERKIA / LH3tik LH6ra

Gorputz eta sentipenen arteko lotura emozionala bultzatzeko saioak izango dira, tresna tekniko, sormenezko eta emoziozkoak berengana ditzaten. Halaber, arlo konkretuen inguruko hurbilpena: ikuskizunak sortzeko prozesua, eszenografia...



MUSIKA / HH4tik LH1era

Isiltasuna, armonia, erritmoa... Ongizatea lortzeko, komunikazio bideak irekitzea, emozio eta sentimenduak askatuz. Jolasen bidez, musikaren munduan murgiltzeko aukera interpretazioa, inprobisazioa, ahotsa, mugimendua...



TXIKIRRITMO

HH3tik HH5era

Dantza tresna paregabea da umearen garapen integrala aberasteko: garapen kognitiboa, psikomotorra, afektiboa, sozializazioa eta komunikazioa lantzen lagunduz.



SeberAltube
IKASTOLA

DANTZA MODERNOAK

Funky, Hip hop... / LH1etik LH6ra

Koordinazioa eta psikomotrizitatea garatzeaz gain, sormena, oreka, malgutasuna eta indarra lantzen dira. Talde lana, autoezagutza, koreografia...



BERTSOLARITZA

LH6 eta DBH

Hitz jokoen bitartez eta gure hizkuntza Euskara gidari, malgutasuna eta (h)urbiltasunaren sorrera.



KORUA/ LH1etik DBHra

Norberaren instrumentu nagusia den ahotsa ezagutzeko eta erabiltzen ikasteko aukera, pertsona bakoitzari bere potentziala garatzen lagunduz eta kantu teknika hobetuz.



SUKALDARITZA

HH3tik gora

Jaten duguna garelako, era erraz eta sinple batean hurbileko elikagaiak ezagutu, uztartu eta dastatzeko aukera. Jaki-tun izateko aukera.



GUZU/HIZKUNTZAK

INGELESA / HH4tik LH6ra

Hizkuntza eta kulturaren jabetze prozesua ahalbidetzen duten metodologia, estrategia eta baliabide didaktikoen bidezko hezkuntza.



FRANTSESA / LH1etik LH6ra


Euskal Herrian berba egiten den hizkuntzetako bat izanik, metodologi desberdinen bidez bere ezagutzan sakontzeko aukera paregabea.



SeberAltube
IKASTOLA



GUZU/TEKNOLOGIA



HATZ 10 / LH3tik LH6ra

Bakoitzak bere erritmoan eta joko desberdinen bidez, letrekin harreman zuzena edukitzeko aukera paregabea.

INFORMATIKA / LH3tik LH6ra

Informatikaren oinarrizko jakintzak ezagutzearekin batera, ordenagailuen erabilera zaindu eta egokia sustatzen duen ikastaroa.



ROBOTIKA / LH3tik LH6ra

Zientzialari gisa, makinen funtzionamendua ikertu eta robotikan eta programazioan murgilduko dira bizitza errealeko erronkak ebatziz.



GUZU/KIROLAK



KIROLAK

Kirol jarduerak dituzten onurak zenbazezinak dira eta balioetan hezteko lanabes oso baliagarriak direla jakina da. Kiroltasuna, talde lana, errespetua, ohitura osasuntsuak...

AURREKIROLA / HH5

SASKI ESKOLA / LH1-LH2

SASKIBALOIA / LH3tik gora

FUTBOL ESKOLA / LH1-LH2

FUTBOLA / LH3tik gora



ESKUPILOTA LH1-LH2

Euskal Herriko eta gurea den kirol honetan lehen urratsak emateko aukera paregabea. Arkupe pilota taldearen eskutik ikastolako frontoian jokatzeko aukera.



HERRI KIROLAK

LH3tik LH6ra



Herri Kirolak gure kultura eta tradizioaren parte integralak dira, eta horiek bizitzeko eta bizirik mantentzeko, teknika eta estrategia finkoak beharko dira. Gure eskaintza horretan, parte-hartzaileek ezagutuko dituzte kirol tradizional honen oinarriak eta, aldi berean, erronka berriak izango dituzte, horien barruan jokatzeko diren indar fisiko eta mentala baliatuz.

Entrenamenduetan, parte-hartzaileek teknikak finetzeko aukera izango dute, hala nola harri altxaketa, aizkolari, harri bultzada eta beste zenbait, ikasiko baitituzte pertsona bakoitzaren ahuleziak eta indarguneak nola uztartu, kualitate tekniko eta fisiko ezin hobeak lortzeko. Ikuskizunetan emandako sormen eta gogo betea izango da ikusteko aukera!

ESKALADA

LH3tik LH6ra

Eskalada, gorputzaren eta naturaren arteko sinbiosi perfektua da. Gure eskalada saioetan, parte-hartzaileek esperientzia praktiko eta emozionalak biziko dituzte.


Eskaladan, gorputzaren mugak zeharkatzean, parte-hartzaileek indarra, trebetasuna eta pazientzia landuko dituzte, baina baita beren barruko indarra eta emozioen kudeaketa ere.



XAKEA

LH3tik LH6ra

Xakeak onura ugari eskaintzen ditu haurrengan, adimen-gaitasuna, memoria, arreta eta kontzentrazioa hobetzen baititu.



ARGAZKILARITZA

LH5etik DBHra



Azaleko eta egindako gauzak ematen zaizkigun gizarte honetan, irudimena eta sormena landuko dira argazkiak egin, osatu eta emozioak adierazteko. Prozesu honen bitartez ingurunearekiko eta gizartearekiko elkarreragina hobetuz, armonian diharduten ingurua eta ingurunea errespetatzen ikasiz.



GUZU ESKAINTZA DBH 2025/2026



BERTSOLARITZA DBH1 eta DBH2

Hitz jokoen bitartez eta gure hizkuntza Euskara gidari, malgutasuna eta (h)urbiltasunaren sorrera.

ANTZERKIA DBH1etik DBH4ra

Gorputz eta sentipenen arteko lotura emozionala bultzatzeko saioak izango dira, tresna tekniko, sormenezko eta emoziozkoak berengana ditzaten. Halaber, arlo konkretuen inguruko hurbilpena: ikuskizunak sortzeko prozesua, eszenografia...



ARGAZKILARITZA

DBH1etik DBH4ra

Azaleko eta egindako gauzak ematen zaizkigun gizarte honetan, irudimena eta sormena landuko dira argazkiak egin, osatu eta emozioak adierazteko. Prozesu honen bitartez ingurunearekiko eta gizartearekiko elkarreragina hobetuz, armonian diharduten ingurua eta ingurunea errespetatzen ikasiz.




SUKALDARITZA

DBH1etik DBH4ra

Nerabeentzako sukaldaritza Ikastaroa, independentzia bilaketa eta hazkunde etapa zoragarri horretan dauden gazteentzat diseinaturik. Sukaldean beraien jatorduak egiteko oinarritzko errezetak ikasi haien autonomia eta konfiantza sustatzea.





ROBOTIKA / DBH1 eta DBH2

Zientzialari gisa, makinaren funtzionamendua ikertu eta robotikan eta programazioan murgilduko dira bizitza errealeko erronkak ebatziz.

KIROLAK



DBHko ikasle askok herriko taldeetan izena eman ohi dute baina ikastolako taldeak mantentzearen aldeko apostua egiten ari gara.

Ikasturte honetan baieztatutako datuen arabera, talde hauek osatuko dira:

FUTBOLA / DBH2

SASKIBALOIA / DBH



ikastolenelkartea

ikastola



SeberAltube

IKASTOLA